

# TUTORETZA 1. SAIOA

## Elkar ezagutza



Galdera batzuk jarri arbelean eta 10 minutu eman, pentsatu edo idazteko koadernoan erantzunak. Gero bakoitzak bere aurkezpena egin denen aurrean galderen erantzunekin baliatuz.

- 1- Nor naiz eta nondik (zein eskolatik) nator
- 2- Zer dut gustuko
- 3- Anekdota bat kontatu
- 4- Aipatu arreta deitzen dizun pertsonai bat eta esan zergatik aukeratu duzun

## TUTORETZA 2. SAIOA

### Pegatinak edo gometsak



Pegatina desberdinak aukeratu.

Adibidez 22 ikasleko taldean pegatina berdina (lauki urdina) 12 ikaslerentzat. Beste bat (triangelu horia) 7 ikaslerentzat. Beste bat (borobil gorria) 2 ikaslerentzat. Eta bakarra (borobil berdea) geratzen den ikaslearentzat.

Lerroan jarrita eta hitzik egin gabe (hau oso garrantzitsua da) bakoitzari pegatina bat jarri kopetan (bekokian). Kontu handia izan behar dugu bakarra den pegatina nori jartzen diogun.

Guztiak jarrita daudenean, taldeak egin behar dituzte pegatinen arabera. Ez ahaztu **ezin dutela hitzik egin.**

Amaieran, ikasleek, batez ere bakarra geratu denak, bere inpresioak edota sentimenduak azaldu behar ditu

## **TUTORETZA 3. eta 4.SAIOAK**

Ordezkaría, ordezkari ordea, ekordezkaria, euskera batzordeko ordezkaria eta “google calendar”- erako arduradun bi aukeratu bozketa egin ondoren. Akta sinatu.

### **\_TALDEKO ORDEZKARIAREN HAUTAKETA**

Helburua: Taldeko ordezkariaren hautaketa era serio eta arduratsu batean egitea.

#### Saioaren garapena:

1. Tutoreak ikasleei ordezkariaren figuraren garrantzia azalduko die.

2. Taldeak egin (4–5 ikasle).

a) Ordezkariaren betebeharrak irakurri eta zerbait gehiago

egin behar duela pentsatzen baduzue, azpian gehitu

b) Ordezkariaren ezaugarriak irakurri. Ados zaudete ezaugarri horiekin? Zerbait aldatuko zenukete?

c) Ordezkariaren eskubideak irakurri. Zerbait gehituko zenukete? Idatzi azpian.

3. Talde handian talde txikien ekarpenak komentatu eta proposamen berriak egonez gero eztabaidatu eta adostu.

4. Botazioa egin. Hautaketaren prozedura:

- Ikasle bakoitzak bi hautagaien izenak jarriko ditu

- Lehenengo bozketa honetatik boto gehien lortu

dituzten lau hautagaien izenak aterako dira. Ondoren

bigarren hautaketa bat egingo da lau izen horien

artean bat aukeratuz. Boto gehien duena Ordezkaria

izango da eta bigarrena Ordezkari Ordea izango da.

### **\_Netiketa**

Gelako kortxoan jarrita dagoen kartela komentatu eta landu

